

POBREZIA ENERGETIKOAREN ARLOKO ERAGILE SOZIAL NAGUSIEN IRITZIA



2015eko Urria



**Gipuzkoako
Foru Aldundia**
Ingurumeneko eta Obra
Hidraulikoetako Departamentua
Departamento de Medio Ambiente
y Obras Hidráulicas

Siis Centro de
Documentación
y Estudios
Dokumentazio
eta Ikerketa
Zentroa
Fundación Eguía-Careaga Fundazioa

AURKIBIDEA

1. HELBURUAK ETA METODOLOGIA.....	3
1.1. Helburuak	3
1.2. Metodologia	4
1.3. Berriemaileen hautaketa.....	4
2. ONDORIOAK	
2.1. Pobrezia energetikoaren kausak.....	6
2.2. Pobrezia energetikoaren ondorioak	11
2.3. Gure lurraldean pobrezia energetikoa murriztean eragina izandako politika eta neurrien ebaluazioa	12
2.3.1. Neurri zuzentzaileak	12
2.3.2. Neurri prebentiboak	14
2.4. Inplikaturako eragileen rola ebaluazioa	17
2.5. Iraunkorra den eredu energetikoa	19
2.6. Gipuzkoako Pobrezia Energetikoaren prebentzioa	21
2.6.1. Antzemandako lehentasunak	21
2.6.2. Aurkeztutako proposamenak.....	22

1. HELBURUAK ETA METODOLOGIA

1.1. Helburuak

Txosten hau kokatzen da SIIS Dokumentazio eta Ikerketa Zentroak Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen eta Obra Hidraulikoetako Departamentuarekiko aholkularitza-lanaren baitan, eta bertan nahi dira landu oinarrizko printzipio eta ildo nagusi batzuek 2016-2019 arorako izaera estrategikoa duen Gipuzkoako Energia Foru Plana sendotzeko proposamen gisara. Testuinguru horretan burutu da izaera kuantitatiboa duen diagnostiko bat Gipuzkoako pobrezia energetikoaren hedapena eta eragin gehien pairatzen duten etxebizitzetako ezaugarriak ezagutzeko, eta baita ere pobrezia energetikoa prebenitu eta gaiari heltzeko gure lurraldean ageri diren neurri, prestazio, prebentziora bideratutako baliabideen inbentario bat osatzeko.

Osagarri gisara, txosten honek proposatzen du arazo horren hedapenaren diagnostiko bat, atzetik dauden kausak eta dituen ondorioak ezagutzeko, betiere oinarri hartuz energia- eta ingurumen-politikan, edota egoera horiek gehien pairatzen dituzten biztanleria-taldeek zuzeneko harremanean dauden pertsonen informazioaren ekarpenak.

Ikuspegi hori aintzat harturik, azterlanak bildu nahi ditu ondorengo sei gai hauen inguruko datuak:

- Pobrezia energetikoan eragin gehien duten kausak eta gehigarriak diren balizko kausak.
- Pobrezia energetikoaren ondorioak eta beraien pertzepzio sozialak.
- Gure ingurunean pobrezia energetikoaren aurka hartutako neurri zuzentzaile eta prebentzioen ebaluazioa eta eraginkortasuna.
- Arazoari aurre egiten ari diren eragile bakoitzaren jardura eta ekimeneren arloak.
- Gaur egungo eredu energetikoaren balioztatzea eta balizko hobekuntzak.
- Gipuzkoako Energia Foru Planaren 2016-2019 aroko berrikusterako hartu beharko liratekeen lehentasunak.

1.2. Metodologia

Aipaturiko helburu horiek betetzeko, azterlan honetarako erabili da izaera kualitatiboa duen metodologia bat, eta egituratzen da jatorri desberdineko eragileak aurrez aurre jarrita buruturiko hementzi elkarrizketetan. 2015eko apirila eta maiatza artean burutu ziren elkarrizketa horiek, eta berauen iraupena izan zen ordubete eta bi ordu artekoa (batez bestean, ordubete eta hogeituroko iraupena) eta euskaraz edota gazteleraz burutu zituzten, elkarrizketaturiko pertsonen lehentasunak kontuan hartuz. Kasurik gehienetan, elkarrizketa horiek burutu ziren aipaturiko erakundearen gunean, eta beste elkarrizketak burutu ziren SIIseko bulegoetan. Grabatu egin ziren elkarrizketa horiek¹, burutu ondorengo informazioa modu literal batean jasotako aipamenak aztertu ahal izateko.

Gidoi berberaren erabileraren bidez lortu nahi da pobrezia energetikoaren 'argazki' panoramiko bat. Zeharkako ikuspegi hori aberasten dute berriemaile bakoitzaren ikuspegi instituzional eta sozial propioek, eta logikoa denez, luze eta zabal azaldu dituzte hobekien ezagutzen dituzten alderdiak.

Udaletako teknikarien iritzia jaso ziren talde-elkarrizketa batean 2015eko apirilean, eta bertako partaide izan dira zortzi udaletako hamaika pertsona.

1.3. Berriemaileen hautaketa

Pobrezia energetikoak dituen alderdi anitzak kontuan hartuz, azterlan honetarako berriemaileen hautaketan nahi izan da fenomeno hori aztertu erakunde eta politika sozialen ikuspegi desberdinak kontuan hartuz, betiere, transbertsala eta ahal bezain osoena den ikuspegi orokor bat lortu nahian.

Saioa egin da ondorengo bi ikuspegi nagusi hauek jasotzeko ahalegina burutuz:

- Energiaren arlotik bilatu da Ingurumen edota Hirigintzako teknikarien ekarpenak biltzea, eta baita ere eskualdeetako garapen-erakundeetako arduradunen ikuspegiak jasotzea. Izan ere, berauek eskaini baitezakete birgaitze eta efizientzia energetikoaren arloan argia den premia eta aukeren inguruko ikuspegi bat. Modu osagarri batean, bertara gonbidatu dira pobrezia energetikoari aurre egiteko erakunde ekologistak, zehazki, fenomeno horretan espezializatutako talde ekologista eta hiritarren plataformak.
- Interesgarria gertatu da gizarte-zerbitzuetako udal-teknikarien iritzia ezagutzea, izan ere, bertan artatzen baitituzte gizarte-bazterketa pairatu edo bazterkeria-arriskuan dauden pertsonak, modu horretan berri izateko pobrezia energetikoaren inguruko berauen kontzeptuak eta ekidin edota arintzeko bideratzen diren baliabideak.

Gipuzkoako Foru Aldundiak proposatu zituen zerrenda batean elkarrizketatzeko pertsonen profilak, berauekin harremanean jarri eta gehienek onartu zuten proposamen hori. Horren ondoren, beste pertsona batzuen partaidetza eskatu zen, modu horretan elkarrizketa-kopuru egokia lortzeko. Guztira, elkarrizketatu zituzten Udaletako Ingurumen edota Hirigintzaren arloko sei teknikari, Eusko Jaurlaritzaren mendeko diren bi erakunde, kontsumitzailearen arretarako bulego bat, tokiko edo eskualdeko garapenerako lau agentzia, ingurumen edota energiaren arloko lau erakunde eta arlo akademikoko bi profesional. Ondorengo hau da partaide izandako pertsonen zerrenda:

¹ Berauen eskariz, elkarrizketetako oharrak hartu ziren lau elkarrizketetan.

Energia eta ingurumenaren arloa

- Ana Juaristi. Donostiako Udaleko Teknikaria.
- Aitor Gerenabarrena. Oñatiko Udaleko Hirigintza Teknikaria.
- Iñaki Azkarate. Errenteriako Udaleko Ingurumen Saileko Goi Teknikaria.
- Iñigo Muñoz. Tolosako Udaleko Ingurumen Saileko Teknikaria.
- Gorka Egia. Orendaingo Alkatea.
- Izaskun Ceciaga. Azpeitiko Udaleko Ingurumen Saileko Teknikaria.
- Iñaki Bóveda eta Álvaro Pérez Laborda. Euskal Energiaren Erakundeko (EVE) Energia Berriztagarri eta Inbertsioen Sustapenerako Saila.
- Aitor Urresti. Eraikuntza Kalitatearen Kontrolerako Laborategia (EKKL, Eusko Jaurlaritza).
- Lourdes Rodrigo. Donostiako Kontsumitzailearen Informaziorako Udal Bulegoa (KIUB).

Toki eta eskualdeetako garapen-erakundeak

- Esther Zarrabeitia. Debegesa.
- Begoña Behobide. Iraurgi Berritzen.
- Orkatz Goenaga. Urola Erdia.
- Asier Legorburu. Oarsoaldea.

Administrazio Publikoa, udaletako gizarte-zerbitzuak

- Mila Holgado. Irungo Udala.
- Marijo Carrera eta Ziortza Rodriguez. Pasaiako Udala.
- Leire Sein. Errenteriako Udala.
- Dami Muñoz. Lezoko Udala.
- Izaskun Oronoz Berrotaran. Lasarte-Oriako Udala.
- Eduardo Esnaola. Arrasateko Udala.
- Ana Lozano, Ainitze Ormaetxea eta Maite Serrano. Tolosako Udala.
- Amagoia Ruiz de Gauna Barrutia. Elgoibarko Udala.

Hirugarren sektorea, energia eta ingurumenaren arloak

- Olatz Azurza. Goiener.
- Alberto Bezunartea. Gure Energia Plataforma.
- Jon Terés. Som Energia-Energia Gara Plataforma.
- Xabier Rubio. Haritzalde Naturzaleen Elkarteak.
- Mikel Insausti. Ekoguneko Zuzendaria.

Unibertsitate-arloa

- Iker Azkue eta Aitziber Sarobe. Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea (HUHEZI), Mondragon Unibertsitatea.

2. ONDORIOAK

Aurretik nabarmendu den bezala, elkarrizketen oinarri eta horien osteko gogoetak egituratu dira ondorengo sei atal nagusi hauetan: pobrezia energetikoaren kausak, pobrezia energetikoaren ondorioak, gure ingurunean egokitutako neurrien eraginkortasuna, inplikaturiko eragileen ardura, eredu energetiko iraunkorra eta Gipuzkoako pobrezia energetikoa prebenitzeko etorkizunerako estrategia.

2.1. Pobrezia energetikoaren kausak

Nazioartean, kausa orokor gisara onartu dira ondorengo hauek:

- Etxebizitzetako diru-sarbide apalak.
- Energia-salneurriaren hazkuntza.
- Efizientziaren maila baxua eta gehiegizko kontsumo energetikoa.
- Informazioaren eskasia.
- Baldintza klimatikoak eta habitata.

Elkarrizketaturiko pertsona horiek guztiek nabarmentzen dute pobrezia energetikoa ez dela faktore bakar baten ondorio, izan ere, egoera edota kausa desberdinen arteko interakzioaren ondorioz gertatzen omen da fenomeno hori. Elkarrizketaturiko pertsonen esanean, nabarmendu daiteke badi-rela kausa berezi batzuek daudela. Horien artean aipatzen dituzte energiaren etenik gabeko hazkuntza eta krisialdi ekonomikoaren ondorioz gertaturiko etxebizitzetako diru-sarbideen beherakada. Hala-ber, gai garrantzitsutzat hartzen da informazioaren faktorea, baina elkarrizketaturiko eragile horiek ez dute irizpide finko bat alderdi horren inguruan. Aipamen berezia izan dute etxebizitzaren baldintzek, eta zehazki aipatzen dute etxebizitza-parkea zaharkitua dagoela; gehienbat, politika prebentiboetan duen garrantziagatik.

Pobrezia energetikoaren oinarritzko kausa gisara nabarmentzen da energia-prezioaren etenik gabeko gorakada. Horretaz gain, eragileek nabarmentzen dute etxebizitzetan gero eta kontrol gutxiago dutela osagai partikular horren inguruan, baina ez soilik fakturaren alderdi finkoak ezagutu duen hazkuntzagatik (hau da, ez du kontsumoarekiko erlaziorik), baita ere derrigorrekoa delako premia-koak diren betekizun batzuetarako, adibidez, elikagaiak prestatzeko.

Udaletako gizarte-zerbitzuetako teknikoak bat datoz pobrezia energetikoaren oinarritzko kausa gisara energiaren prezio altua nabarmentzen, eta hori islatu izan da etxebizitzak mantentzeko gastuetarako bideraturiko laguntza ekonomikoetan. Halere, aurrerago zehaztuko den bezala, kontuan hartu behar da talde horretan ñabardura garrantzitsu bat, pobrezia energetikoa pobrezia alderdi bat delako, eta horrek egiturazko izaera duelako.

Hirukoiztu egin dira mantentzearen gastuetarako bideraturiko larrialdietarako [gizarte] laguntzak [...] aurreko bi edo hiru urteotan.

Orain dela lau urteko familia baten [mantentzeko gastuen] fakturaren media 80 eurokoa izan zitekeen, eta [gaur egun] izan daiteke 200ekoa. [...] Orain dela lau urte nik ez nuen 200 euroko fakturarik ikusten.

Horretaz gain hautematen dutenez, kontsumoa gutxitzeko etxebizitzetan sakrifizio handiak egin arren, esfortzu horrek ez du eragin nabarmenik izaten faktura horiek gutxitzean, eta horrek ekartzen du kontsumoa gutxitzeko gogogabezia eta motibazioa galtzea. Nagusiki, hori gertatzen da azkeneko urteotan gertatu den prezioa garestitzeko garaturiko politika energetikoengatik. Egoera horren inguruan, elkarrizketaturiko pertsona batzuek azpimarratzen dituzte fakturaren alderdi finko eta aldakorrak, hau da, ezarritako prezioan duen izaera finkoko alderdi bat dago, eta aldaezina da horren prezioa; baina bestetik, badago 'aldakorra' den beste kontzeptu bat, eta aldatu egiten da kontsumoaren arabera. Izaera finkoko hazkunde hori da egiazko arazoa, eta horren ondorioz puzten dira energiaren fakturak.

Berezko arazoa ez dago prezioan, baizik eta faktura osatzeko moduan.

Horren ondorioz haserrea gertatzen da gizartean, sakrifizioak egin arren, ez baita nabarmentzen egiazko onurarik. Pertsonak ez dute ulertzen zer ordaintzen duten, eta horren ondorioz, hazten ari da iruzurraren sentipena.

Pertsonak duten kontsumoarekiko eragina oso apala da Administrazioak izan dezakeen eraginaren konparazioan.

Benetako arazoa gertatu da norbera ohartzean ahalegin horiek egiteak ez duela saririk ekarriko.

Elkarrizketaturiko pertsona horiek guztiek diotenez, gutxitu egin da etxebizitzetako diru-sarbideen maila. Bat omen datoz krisiaren ondorioz gertaturiko langabeziaren tasa altua eta pobretze orokorra diru-sarbideen beherakadarekin.

Berauek zehazten dutenez, halaber, ez omen da ahaztu behar horrek sortzen duela bizi-kalitatearen galera eta kontsumoaren portaeran aldaketa garrantzitsu bat gertatzea, eta horren ondorioz, etxebizitza askotan gastuak lehenesten dira, eta egoera horretan, ez du energiak garrantziarik gehiena izaten. Modu horretan, aintzakotzat hartzen da etxebizitzetako kezka nagusia elikadura dela, eta

horren ondoren kokatzen dira jantziak eta hezkuntza; eta horretarako energiaren kontsumoa gutxitu behar bada, ez dute hori gertatzeko inongo zalantzarik izango.

Muturreko langabeziaren tasak, orokorrean gertaturiko pobretzea eta bizi-kalitatearen gutxitzeak diru-sarbideen gutxitzearekin erlazio zuzena duten faktoreak dira. Hasiberria den panorama sozioekonomikoaren aldaketa horren aurrean, alderdi ludikoak alde batera utzi zituen jendeak (zinemara edo afaltzera joatea), horren ondoren arropak edota garbitasunerako gauzak erosteari utzi zioten, eta heldu da une bat hori egin arren nahikoa ez dela, eta hasi dira oinarrizko gaiak murrizten, eta premiazko gai nagusia elikadura izanik, energiaren gastu orokorrak gutxitu eta argindarraren gastua zaintzen.

Ikuspegiak desberdinak dira informazioari dagokionez, baina badute bateragarria den alderdi bat, hau da, kalitatezko informazioaren eskasia.

Horren haritik, batzuen esanean humezurtz dago gizartea informazio ezagatik, batik bat, pobrezia energetikoa pairatzen duten etxebizitzek eskuragarri izan ditzaketan dirulaguntzen zenbatekoagatik eta laguntza horien moduengatik. Ez du horrenbesteko garrantziarik informazioaren eskasiak, eta garrantzitsua dela kalitatezkoa eta erabilgarria den informazioaren eskasia. Fakturarekiko harremana duen informazio-eza gertatzen da, hau da, eskura dauden kontratazio eta laguntzen inguruko aukeren inguruko informazio eza. Horren ondorioz, ez dute laguntzarik jasotzen horretarako onuradun izan daitezkeen familia askok eta askok. Erabaki garrantzitsuak hartu ahal izateko, ez dute jasotzen informazioa modu osatu eta argi batean.

Hori dela-eta, batzuek erabiltzen dute 'informazio gehiegi duen gizartearen' kontzeptua, hau da, jasotzen omen dugu gehiegizkoa den edonolako informazioa, eta azken batean, ezin dugu berezitu egiaz garrantzizkoa zer den.

Arazoa izan da zarataz goraino geundela, eta ez genuela modu egokian iragazten heltzen zitzaigun informazio hori; sinetsi egin dugu energia oso gai konplexua eta ulertezina dela, eta hori ez da horrela; benetan behar dugu kalitatezkoa izango den informazioa eskuratzea.

Informazio eta hezkuntzaren zutabe izan beharko lukete informazio gardenak eta iraunkortasunera bideratutako aztura osasungarrien sustapenak.

Gainera, azpimarratzen da igorritako mezu horiek ez direla modu koordinatu batean transmititzen, eta batzuetan kontraesankorrak izaten direla.

Gerta liteke informazioa ematen duten kanpaina horiek heltzea, baina ezinezkoa da pentsalmoldearen aldaketa bat gertatzea, kontraesankorra baita informazio hori; geroz eta gehiago kontsumitzeko gonbitea luzatzen da (hori guztia elektrikoa), baina aholkuak luzatzen dira kontsumoan aurrezteko (oraindik ere funtzionatzen duten bonbillak kontsumo baxukoengatik trukatu). Horrek herritarra nahastu egiten du, eta azken batean, Administrazioarekiko konfiantza-eza areagotzen du.

Bestetik, kontuan hartu beharrekoa da EAEko etxebizitza-parkea nahiko zaharra dela, eta berriemaile horietako batzuek bat datoz esaten ezin dela saihestu pobrezia energetikoaren kasua gisara, etxebizitza horietako efizientzia energetiko baxua eta energiaren gehiegizko kontsumoa. Gure lurraldeko etxebizitzaren erdia eraiki ziren gaur egun eskatzen diren efizientzia energetikoaren neurriak abian jarri aurretik; eta kasu horietan, kontsumo energetikoa ez dela etxebizitzaren kontsumo-azturen ardura bat, baizik eta baldintza egokiak ez edukitzeak galdutako energia gehiegiatik, gehienbat, aislamendu eta berogailuen ondorioz.

Arazo nagusietako bat da zaharkituenetako bat dela Euskadiko etxebizitza-parkea, horren araudiaren aurrekoa da horietatik %50a gertu.

Batzuek erlazionatzen dute gaur egungo kontsumoa azkeneko urteotan gertaturiko balioen aldaketa eta konfortaren inguruko estandarrak aldatu izanarekin. Premiakoa ez izan arren, aintzakotzat hartzen da gizarteak gehiegizko energia-eskaria duen erosotasunaren maila baten ohitura hartu duela.

Hori dela-eta, ezinbestekoa da gizarte-errealitatea eta norberaren testuingurua kontuan izatea maila horiek ezarri ahal izateko. Premien arabera aldatzen doaz estandar horiek; eta kontuan hartu beharrekoa da gaur egun ulertzen dugun erosotasunaren inguruan ezartzen direla bizi-estandar horiek; halere, muga batzuk ezarri behar dira duintasunaren gutxiengo bat ezartzeko garaian.

Halaber, garrantzitsuak dira energiaren erabilerarekiko ohiturak. Guztiontzat berbera al da konfortaren maila hori? Ez, ziurrenik.

Kulturala da pobrezia energetikoaren kausa nagusia, hau da, urteetan hartutako ohiturak dira. Ezinbestekoa al da gure ingurunean, gure klima honetan, batzuetan tenperatura 19 gradua izatea? Ez dirudi logikoa denik, eta modu izugarri batean hazi dira konfort eta kalitatearen inguruko estandar horiek. Horren ondorioz zalantzan jarri beharko genituzke konfortaren estandar horiek zer diren. Klimaren aldaketarik ez da gertatu azkeneko urteotan, eta hori gertatu bada, are gehiago epeltzeko izan da. Gure pentsamoldea aldatu da. Gure etxeetako berokuntza edo egosketarako sistema horiek ohitu garenaz bestelakoak izan beharko lukete.

Zaila da konfortaren estandarra zein den zehaztea, gehienbat ezinbestekoa delako errealitate soziala eta norberaren testuingurua kontuan hartuz ezartzea. Egoera berberaren aurrean, ez dugu guztiok pertzepzio berbera izaten. Gizartean aldatu egin da kontsumitzeko modua, eta eutsiezina da gaur egun mantentzen dugun kontsumorako modu hori, azken batean, subjektiboa delako konfortaren pertzepzioa. Kontsumoarengan lortu behar da eragitea, eta ahaleginak bideratu behar dira jendeak sakrifizio batzuek egin behar dituela jabetzeko [...]

Nolanahi ere, ez da guztien adostasunik lortu kontsumoaren inguruan, izan ere, elkarrizketaturiko eragileen erdiak oraindik ere gehiegi kontsumitzen dela onartu arren, besteek diote ez dutela aztura txarrak izaten eta ez dela gehiegizko kontsumorik gertatzen, dela ingurumenaren kontzientziagatik, dela fakturretan aurreztu beharagatik.

Eragile batek nabarmentzen du kontsumoen desberdintzapenaren garrantzia:

Ez da gauza bera sukaldean jarduteko edo beronkuntzarako energiaren erabilera egitea, izan ere, biak ere premia garrantzitsu izan arren, bata bestea baino garrantzi handiagoa du; elikatzeko modu bakarra dago, aitzitik, aukera desberdinak daude berokuntzarako.

Pobrezia orokorrekiko loturari dagokionez, banaka elkarrizketaturiko pertsona horien guztien iritzia bat datoz, eta nabarmentzen dute pobrezia-egoeran dauden etxebizitzetan aukera ugari dardela pobrezia energetikoa pairatzeko, baina askok uste du diru-sarbide ertainak dituzten familiak egoera hori bizi dutela. Horregatik, ez da behar-beharrezkoa bata bestearen ondorio izatea, eta diagnostikoa diferentea denez, aldi berean koordinatu eta desberdinu behar dira bi politika horiek. Premiazko diren politikek larrialdi-egoeraetatik atera behar dituzte familia horiek epe motzean; bigarrenak, aldiz, abiarazten dituzte epe luzearako prebentzio-politikak.

Udaletako gizarte-zerbitzuetako teknikariak aho batez eta erabateko ustez diote pobrezia energetikoa pobrezia zati bat dela, eta egiturazko izaera duen fenomeno dela. Batzuen esanean, zantzarik gabe maila politikoaren artean modan dagoen kontzeptu bat omen da pobrezia energetikoa, eta ez diote garrantzirik ematen.

Une honetan, politikarien nobedadea da hori [...] Ez dugu pobrezia energetikoaz jardun behar, pobreziaz jardun beharra dugu.

Halere, gizarte-laguntzen onuradun ez diren pobrezia energetiko pairatzen duten pertsonarik ezagutzen ote duten galdetzerakoan, baietz diote batzuek, gehienbat berauen etxebizitzetan duen gastu altuarengatik berogailurik pizten ez dutenen kasuak.

Nolanahi ere, askok aipatzen dute orokorregia dela onarturiko pobrezia energetikoaren definizio hori, eta ezinbestekoa omen da kontzeptu hori argitzea, eta ez soilik egoera horretan dauden premiako kasu horietan, baita ere kaltebera den kolektiboa identifikatu eta arazoa ekidin ahal izateko beharrezko diren neurri prebentiboak hartzea.

Ondorengo bi kolektibo desberdin hauek daude: jada pobrezia-egoerak pairatzen dituzten lagunak, eta derrigorrez artatu behar dira horien egoerak; eta kalteberatasun-egoeran dauden lagun horien kasuak, eta horien egoerari aurre hartu behar zaio modu prebentibo batean, pobrezia energetikoa ez dadin sortu.

Bestetik, agerikoa ematen du kontzeptu horren baitan kasuistika zabala agertu daitekeela, eta egoia ematen du eskala moduko bat ezartzea. Horrek lagunduko luke ezarri beharreko premiak hobe egokitu eta neurri prebentibo gisara berehalako laguntza ekonomikoak ezarri eta antolatzen.

Azken batean, kausa horiek guztiak elkarri erlazionatzen dira, hau da, etxebizitza egoera eskasean duen familia batek ezin izango du baliabiderik inbertitu efizienteagoak diren etxetresna elektrikoak erosten, eta horren ondorioz, hazi egingo da egiten duen kontsumo energetikoa, eta prezioaren hazkuntzaren ondorioz hazi egingo da ordaintzerik izango ez duen fakturaren zenbatekoa; beraz, zorpetzea hazi egingo da, eta horrekin bat, gutxitu egingo da eskuragarri duen errentaren maila.

2.2. Pobrezia energetikoaren ondorioak

Oraintsu arte onartu izan dira pobrezia energetikoaren hiru ondorio nagusi hauek: eraikinari, osasunari eta etxebizitza propioari eragiten dizkieten alderdiak. Batetik, eragileei galdetu diete bat ote datozen aipaturiko baieztapen horiekin; eta bestetik, galdetzen diete gizarteak duen pertzepzioaren inguruan, hau da, berauen esperientzia oinarri harturik, galdetu diete gizartean ba ote dagoen pobrezia energetikoa pairatzearen ondorioen inguruko kontzientziarik.

Guztiek ere baiezkoa ematen dute ondorio nagusien inguruan, baina ageri dira irakurketa bereiztuak, eta kasu batzuetan proposatzen dituzte gehigarriak diren ondorio batzuek.

Ziurtzat jotzen dute eragin ekonomikoa, baina gai horren inguruan berriemate batzuek desberdintzen dute energiaren horniketa ezin ordaindu eta gastuak lehenetsi behar dituztenen artean; eta azkenengo horiek ez dute esaten berauek pobre direnik, hautaketarako bidea izaten dutelako.

Osasunaren arloko ondorioek kontuan hartzen dituzte bai osasun fisikoa bai osasun psikologikoa, eta batzuen esanean energia aurrezteko etxebizitzetako zailtasunek gizartea bideratzen omen dute apatia moduko egoera batera. Halere, ez dute hautematen osasunarekiko pobrezia energetikoa izan ditzakeen eraginez gizartea jabetzen denik; eta egoera hori pairatzen duten pertsonak kontziente izan arren, orokorrean ez da berbera gertatzen gizartean, eta ondorio ekonomikoez gain ez omen dira besteez ohartzen.

Osasunarekiko ondorioak gehienbat zentratzen dira arnasteko arazoetan, izan ere, tenperatura baxuek eta hezetasunek gehien eragiten baitiete pertsona adindu eta hurrei. Bereziki larria da premia bereziak dituzten osasun-arazo zehatz batzuek dituzten pertsonen egoerak, adibidez, oxigenoaren premia dutenei, izan ere, berebizikoa izaten baita energiaren horniketa kasu horietan. Nabarmentzekoa da Gipuzkon epidermolisi bullosa ('tximeleta-azala') duen haur baten kasua. Bere familiaren etxebizitzako argindarra moztu egin zuten, eta egun batzuetan luzagarri baten bidez bizilagun baten etxetik hartu zuten argindarra.

Pobrezia energetikoaren ondorio psikologikoez adin guztietako pertsonari eragiten diete, eta ondorioak izaten dira estres emozionala eta eskola-errendimendu baxua.

Bertan elkarrizketatutako pertsona batzuek nabarmentzen dute pertsonen duintasunaren galera kontuan hartu beharreko osagai gisara. Konfortaren kasuan bezala, erabateko izaera subjektiboa du kontzeptu horrek, harremana du pertzepzio eta sentsazioekin, eta zaila da kokatzen duintasunarekiko mugari gisako bat. Benetan zaila da, baina horrek lagundu egin dezake, lotsagatik publiko egin gabeko kasuen ezaguerarik ez dagoen pobrezia energetikoa pairatzen duten etxebizitzaren kasuak identifikatzen. Inguruabar horrengatik ondorioztatu daitezke problematika sozial gisako ondorioak, eskuragarri dauden baliabideen lehentasunak dakarren gizarte-bazterketagatik. Sortzen duen gizarte-arraila nabarmena izan arren, ziurrenik gizartea gutxien jabetzen da ondorio horretaz.

Eragile baten esanean, pobrezia energetikoa hitz egitean ez da kontuan hartzen 'pobre boluntario' izendatu daitekeen kolektibo bat, hau da, baliabideak izan arren, energiaren bazterkeria propioa hautatzen duten pertsonak edo gaur egungo kontsumo-ereduaren kontra dauden pertsonak. Horrelako jokabideak hartzen dituzte ingurumenarekiko kontzientziazio eta sentsibilizazio jasoagatik, edota bizimodu 'tradizionalago' bat aukeratzen dutelako.

Bestalde, pobrezia energetikoaren eragin gehien duten kolektiboen artetik ondorengo hauek aipatzen dira: emakumeak, erretiratutako pertsonak, haurrak eta langabetuak. Izan ere, berauek egoten baitira gehien etxebizitzetan. Udal gizarte-zerbitzuek aurkitu dituzte etxez etxeko bisitetan berogailua pizten ez duten pertsona adinduen kasu ugari, horrek duen gastua sahiesteagatik. Halaber, nabarmendu da zerbitzu publikoen erabileran izandako hazkundea, adibidez, udal-kiroldagietako dutxen erabilera (tarteko adina duten pertsonetan), auzo-etxeetako ordenagailuen erabilera (etxebizitzan Internet izateko aukerarik ez duten ikasle gazteak) edota udal-liburutegien kasua (berogailua edota doan irakurtzera joaten diren erretiroa hartutako pertsonak).

2.3. Gure lurraldean pobrezia energetikoa murriztean eragina izandako politika eta neurrien ebaluazioa

Neurri horiek behar dira bideratu helburu bikoitz bati jarraikiz: gutxiago kontsumitzea eta kontsumitzean gutxiago gastatzea.

Pobrezia energetikoaren aurka bereizten dira ondorengo bi neurri hauek: larrialdiak konpondu eta epe motzean eraginkor izatea bilatzen duten izaera zuzentzaileko neurriak (gehienbat dira modu desberdineko laguntza ekonomikoak); eta onura eta konfort iraunkorragoa duten epe luzerako izaera prebentiboko neurriak. Elkarrizketa horietan galdetu egin zitzaizen neurri horien eraginkortasunaren inguruan.

2.3.1. Neurri zuzentzaileak

Izaera zuzentzaileko neurriak osatzen dituzte tarifa sozial (argindarrerako bono soziala) eta errenten inguruko transferentziek (gizarte-larrialdietako dirulaguntzak). Eragile horiek guztiek aho batez diotenez, epe motzerako eraginekoak izan arren, ezinbesteko gertatzen dira, izan ere, premiako baita horrelako larrialdian dauden pertsonak artatzea. Kontuan izan beharreko da ezinezko gertatzen dela energiari kabe janaria prestatzea, eta ezin da utzi hori gabeko etxebizitzarik egotea. Kasu larri horietan Administrazioak bermatu beharra du hornikuntza minimo bat, baina ezin da ahaztu horren egoera larriak bizi ez dituztenen kasuak, sarbiderako baldintzak ez dituztelako betetzen eta zailtasun ugari izaten dituztelako egoerari aurre egiteko.

Epe motzeko baliagarritasuna kontuan hartu arren, udaletako gizarte-zerbitzuetako profesionalak oso kritiko ageri dira errenten transferentziaren gaur egungo sistemaz jardutean. Laguntzen zatiketa da kezu nagusietako bat –kopuru zehatzak daude berariazko gastu batzuetarako–, eta baita ere bideratutako zenbateko baxua –erabat urria baita, gizarte-larrialdietako udalen dirulaguntzetan bideratutako ekarpen ekonomikoak kontuan hartu arren–.

Adabakiak jartzearen sentsazioa dago [...]. Ez zaigu ezertarako heltzen.

Gastu energetikorako dirulaguntzen ildo berri bat zabaltzeaz ari dira [...] eta bitartean udaletxe batzuetan bideratzen dute dirulaguntza mota bat pobrezia egoerei aurre egiteko... ergelkeria bat dela iruditzen zait.

Transferentzia horien diseinuan eskasiak nabarmentzen dituzte, adibidez, etxebizitzako gastueta-rako prestazio osagarriaren (EPO) eta gizarte-larrialdietarako laguntzen (GLL) artean; edota diru-sarrerak bermatzeko errenta (DBE) etxebizitza batean jaso arren, urtebetean GLL jasotzeko aukera izatea hipoteka bat ordaintzeko, hau da, ondasun pribatuak ordaintzeko diru publikoaz baliatzea. Beste arazoetako bat da ez direla bateratzen gizarte- eta hezkuntza-mailako neurriekin (adibidez, gaitasun pertsonal, sozial eta astiaren erabileraren inguruko alderdiak). Ikuspegi zabalago batetik, askotan jartzen da zalantzan jartzen da uneko laguntza izan beharrekoak erabiltzen direla egiturazko laguntza gisara, eta bide horretatik eskatzen da etxebizitzari loturiko gaur egungo prestazioak bateatzea eta Etxebidek (Etxebizitzaren Euskal Zerbitzua) kudeatzea laguntza horiek.

Halere, izaera zuzentzaileko neurri horiek egiaztapen eta segimendu baten premia izan behar dute (diru publikoa baita). Adituetako batzuek azaltzen zuten laguntzaren gastua kontrolatzeko aukera, horietako batzuek premia energetikoetara bideratzen direlako, adibidez, bono sozialaren kasua; baina beste batzuek bideratzen dira pobrezia egoera orokorrak ekiditera, adibidez, Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta, eta ez dago benetan ezagutzerik energia edo bestelako gastuetara bideratzen ote diren. Onuradun diren etxebizitzetako gertuagoko segimendu bat egiteak, premiako izango luke, edonola ere, eskuragarri dauden zerbitzuak hobeto bideratzea. Udal gizarte-zerbitzuetako profesional batek aipatzen duenez, ez dute asti nahikorik baliabide horiek erabiltzen dituzten etxebizitzetako premiak ezagutzeko, eta administrarien laguntza beharko lukete beste lan batzuetaz libre izateko. Nolanahi ere, eragile guztiak ez datoz bat gai horrekin, eta batzuen ustez familia bakoitzak duen kudeaketa propioa aintzat hartu behar omen da. Izan ere, muturreko egoeretan dauden familiek modu egoki batean bideratzen baitituzte berauen diru-sarrera urriak premiazkoen dituzten arloei aurre egiteko.

Bide horretatik, norbaitek aipatzen du beharrekoa dela familien testuinguru soziala kontuan hartzean. Adibidez, deigarria gertatzen da gehiengo langabezia dagoen hiru belaunaldi biltzen dituen Donostiako etxebizitza baten kasua. Familia horrek dirulaguntza desberdinak jasotzen ditu, eta kontua da etxebizitza berean plasmako bost telebista dituztela. Eragile gehienen ustez, ez lizkietekete telebista horiek izateko aukerarik kendu behar, kontuan hartuz etxebizitzan bizi diren pertsonen zenbatekoa eta bertan igarotzen duten astia. Gehienak langabetu direnez, eta estresa edo suminkortasuna kontuan hartuz gero, bizikidetzarako onuragarri gertatzen delako telebista horiek izatea. Beste batzuen esanean, etxean telebista ikusten egon ordez, lana bilatzen jardun beharko lukete.

Bestetik, energiaren aztura txar bat identifikatzen dutenen artekotik, kontrol edo segimendu hori lotzen dute laguntza ekonomikoak jasotzeko betekizun gisara (azturen aldaketa bat ziurtatu ezean, laguntza horiek kendu beharko lizkietekete). Beste batzuen ustez, energia oinarrizko ondasun bat denez, laguntza horiek ez lituzkete aurretiko baldintzarik izan behar.

Neurri zuzentzaileei dagokienez, egokiena litzateke horien premiarik ez izatea, eta pobrezia energetikoa ez gertatzeko neurriak ezartzea. Baina ez lukete baldintzaririk egon behar; hau da, ez da karitatea, baizik eta oinarrizkoa den premia bati laguntzea, eta azkeneko helburuak izan behar du (pobrezia energetikoa ekiditea lortu ez denean) dagoen egoera horretatik ateratzen laguntzea familia bati [...]

Eragile horiek guztiek aho batez esaten dute epe luzeko neurri prebentiboekiko izaera osagarrikoak behar dutela izan, azken batean neurri zuzentzaile horiek bakarrik erabiliz sintoma bat konpontzen delako, baina ez da konpontzen jatorrian dagoen arazoa.

Beharrezkoak dira neurri zuzentzaileak, baina gehiagorik egin ezean, ez dute inolako zentzurik izango. Berauen inguruan eztabaida politikoaren beharra dago, eta ezarri behar dira kontsumo-taula batzuk ezartezagutzeko normala den kontsumoa zein den eta zehazteko dirulaguntzek dituzten baldintzak. Edonola ere, lotu behar dira epe luzera sartuko diren neurri batzuen jarraipenarekin.

Ezinbesteko dira neurri zuzentzaileak, baina analgesiko moduko bat da, ezin zaio errotik aurre egin gai horri, eta behin-behineko soluzio bat gertatzen da.

Arazoa 'petatxatzea' oinarri izaten duten politika horiek kale egiten duten politikak izaten dira.

Pobrezia energetikoa pairatzen duten etxebizitzetako egiazko konponbidea aurkitzeko, berauen ekonomia eta autonomia berreskuratu behar dute familia horiek.

2.3.2. Neurri prebentiboak

Neurri prebentiboak bideratzen dira pobrezia energetikoaren jatorriko egoerak prebenitu edo ekiditera. Ondorengo bi moduetako neurri hauek bereiztu daitezke: informazio eta hezkuntzari loturiko neurriak; eta eraikuntzetako efizientzia energetikoa hobetzera bideratutako laguntzak.

Eragileen esanean informazio-kanpainak herritarrengana ez direla heltzen esan arren, bakoitzak bere arrazoi propioak ditu gertakizun hori azaltzerakoan.

Etxebizitzetako kontsumoa gehiegizkoa ez dela dioten eragileen ustez, garrantzizkoa ez den informazio gehiegi jasotzen omen dugu. Hori dela-eta, beharrekota omen da informazio hori transmititzeko eginahalak neurtzea, izan ere, informazio-kanpainetan diru gehiegi xahutzen baita, eta premiakota omen da alderdi horretan ere efizienteagoak izatea. Ahalegin gehiegi bideratzen dira kontsumoaren arloan aurreztu beharra transmititzean, baina ez omen da hori benetako arazoa, baizik eta energiaren jatorri eta prezioak ezartzeko moduan dagoela. Kontsumoaren ratioak arazoizkoak dira gaur egun, beraz, beste bide bat hartu beharra du erabilgarria den informazio horrek.

Beste eragile batzuek uste dutenez, gure gizartean erosoegi bizi gara, eta oso zaila da jendea mobilizatzea onura propioari nabarmendu ezean, eta horren ondorioz aipatu daiteke, orokorrean, interesa galtzea nabarmendu daitekeela. Informazio-kanpaina horiek heltzen dira jada arazoaz jabetzen den jendearengana; eta benetan zaila da heltzea kontzientzia hori ez duen gizarteko jendearengana.

Antolaturiko jardunaldi batzuetan txosten bat azaltzen aritu gara hiru pertsonentzako soilik.

Beste batzuen ustez, horren kausa dira Administrazioarengan galdu izandako konfiantza, iruzurtien eskuetan egotea eta batzuetan bideratutako kontraesankorrak diren mezuak. Gizarteari eskatzen zaio energia aurrezte, baina hala eta guztiz, urte askoan bideratu izan diren politika publikoek sis-

tema elektriko eta etxetresnetarako dirulaguntzak bultzatu dituzte (zergatik ez dituzte saritu sukalde ekonomikoen aldeko hautua egindako pertsonak?), edo ohiko bonbillak aldatzea premiatzen da kontsumo baxuko bonbillak oparitzeko kanpainak burutuz (helburua bidezkoa izan arren, eskatu egiten zaie oraindik ere badabilen gailu bat zakarretara botatzea).

Dena den, bat datoz kanpainia horiek izaera etengabea eta iraunkorra behar dutela nabarmentzean, eta, aurretik aipatu duten bezala, ez da nahikoa pertsona gutxi batzuetara heltzea. Gehiengoak dio oso garrantzitsua dela informazio hori heldu behar zaion publikoari zuzentzea, eta horren arabera hautatzea arreta lortzeko mezu eta komunikabiderik egokiena. Ezinbesteko gertatzen da, mezuan oinarri ordez, xede-publikoan oinarri hartutako komunikaziorako plangintza egoki bat izatea. Ezin dira igorri mezu orokor batzuek, ezin zaielako pertsona guztiei gauza berbera eskatu, ez eta modu berean; bestela, arriskuan jartzen baita mezua ez heldu edota oharkabean galtzea.

Horren haritik, berriemaileek diote gertukoena diren administrazioetako kanpainiak, hau da, toki-mailan edota auzoetakoak gertatzen direla eraginkorren, oso ondo funtzionatzen baitu ahoz ahoko transmisioak.

Etenik gabeko izaera eskaini behar zaio gazteen hezkuntza, sentsibilizazio eta kontzientzia hartzeari, izan ere, bizitza osoan izango dira energiaren kontsumitzaile.

Gehienek diote txikien eta nerabeen hezkuntzan lantzen hasi dela energiaren arlo hori Agenda 21 programaren bitartez, baina ez datoz bat nahikoa ote den galdetzerakoan; batzuen esanean, orain dela uste asko kontuan hartu da gai hori, eta beste gai sozial batzuen pareko hezkuntza eskaintzen da, baina beste batzuen ustez, urria da oraindik bertan landutako egitasmoa.

Aho batez esaten dute ezin duela horrek bakarrik izan. Ezinbestekoa da iraunkor bilakatzea etxebizitzetako aztura egokien bidez, eta horregatik ezinbestekoa da pertsona helduen kontzientzazioan lan egiten jarraitzea, nahiz eta gurasoengana heltzeko haurren bitarteko hori komunikaziorako bide egokia izan (adibidez, eskolatik posta elektronikoz ohar bat bidaliz gero, gehienek ez diote kasurik egiten, baina haurrek etxera ohar bat eramaten badute, irakurri egiten dute, haurrek beraien erantzunaren zain gelditzen direlako). Administrazioak igorritako koherentiaren inguruan esaten duten bezala, ezinbestekoa da eskoletako mezu eta etxebizitzetako azturetan bat etortzea; eta hortan datza pertsona helduen hezkuntza eta sentsibilizazioaren garrantzia.

Halaber, nabarmentzen da Administrazioiko langileen artean prestakuntza eskasia bat efizientzia energetiko orokorraren inguruko informazioan hartu daitezkeen neurrien inguruan, eta horren inguruan ekin eta ekin beharko litzateke erabiltzaile diren pertsonen informazio egokia helaraztea lortzeko, batez ere arazoari aurre egiteko zuzeneko harremana izaten duten zerbitzuen kasuan, adibidez, gizarte-zerbitzuen kasuan.

Nolanahi ere, itzulinguak gertatzen dira kanpaina horietan soilik aurrezkoa eta kontsumoaren gutxitzean zentratzeko, izan ere, geroz eta gutxiago kontsumitzen baita (aipatu den gisara, hori gertatzen da arazoaz jabetzeagatik edota gastuen lehenespenagatik); baina hazten jarraitzen du fakturen zenbatekoak. Etxebizitza batzuetako kontsumoa oraindik ere gehiegizkoa den arren, azpiegituraren arazo baten ondorioz izaten da, eta gauzatu egin da kasurik gehienez azturen aldaketa hori. Beraz, etxebizitza horietako kontsumoa gutxitzea lortzeko modu bakarra gertatutako da azpiegitura horiek hobetuz, baina gaur egungo gizartean (are gehiago pobrezia energetikoa pairatzen duten etxebizitzetan) ezinezkoa gertatzen da horrek dituen gastuei aurre egitea (nahiz eta dirulaguntza publikoak

eskaini), eta arreta jarri behar zaio alderdi horri. Horri dagokionez, ondorengo aldibereko bi egoera hauek gertatzen dira: batetik, eta aurretik aipatu denez, ez da nahikoa inbertitzen etxebizitzaren birgaitzean (oraindik ere oso altua delako inbertsioaren kostu hori); eta, bestetik, errentarik apalenak dituzten etxebizitzetan bizi dituzte baldintzarik eskasena, beraz, beraiek egiten dute gasturik gehien energia, baina ezin dituzte dirulaguntza horiek eskuratu altuegia delako egin beharreko inbertsio hori.

Etxebizitzak birgaitzeko laguntzei dagokienez, dirulaguntza horiek bideratzen dira biztanleria orokorrarentzat, baina ez pobrezia energetikoa pairatzen duten etxebizitzetara. Gai horren inguruan gizarte-zerbitzuetako langile batek ohartarazten duenez, diru-sarbide apalak dituzten etxebizitza zaharretako familia askok arazoak izango dituzte birgaitzerako araudiak berrikuntzak egitea exijitzen hasten denean.

Askoren esanean, arlo horretako berrikuntza-lan ugari legez kanpo egiten ari dira batzuetan, modu horretan kostuak gutxitu ahal izateko. Baikortzat hartzen dira gure lurraldeko udalerrri batzuetan abian jarri izandako zenbait ekimen, adibidez, lan horientatik udal-zergeen zati bat edota osoki ordaindu beharrekoak salbuestea. Horren haritik, berriemaile batzuek premiazkotzat jotzen dute iruzurra ekiditeko jarraipen moduko bat egitea, efizientzia energetikoaren aldeko neurriak ezartzeko dirulaguntzaren bat eskatzen duten kasu batzuetan erabili beharreko materialak ez erabiltzea edota aurrezki hori lortzeko neurriak ez bideratzea gertatu daitekeelako, eta egoera horren berri jakiteko inongo kontrolik ez dagoelako. Berrikuntza-lan horien ostean ziurtatu beharko litzateke eskatutako dirulaguntzak eta egokitutako neurri horiek bat datozela; eta gauzak ongi egin ez diren kasuetan dirulaguntza horien itzulketa eskatu ahal izatea.

Dena dela, egokia da etxebizitzako lanen bat egiteko dirulaguntzak jaso ahal izatea hobekuntza energetikoak gauzatzeko, baina egoera horietan onurarik gehien sektoreak izaten ditu eta ez egoera hori pairatzen duten pertsonak. Beraz, baieztatu daiteke efizientzia energetikoa hobetzeko dirulaguntza horiek ez direla kalterik gehien pairatzen dituen kolektiboarentzat, eta hor dago hobekuntza horiei ezin aurre egiteko gakoa.

Etxebizitzak birgaitzea xede duten laguntzen bitartez, ez da bilatzen erabiltzaileen kontsumoa murriztea, baizik eta Euskadi osotasunean hartuta gertatzea murrizketak hori.

Berriemaile guztien esanean, etxebizitzaren inguruan hartutako neurri horiek dira eraginkorrenak, aztaren aldaketak ez baitu ezertarako balio, adibidez, etxebizitzaren baldintzak edota isolatze eskasagatik galtzen delako kontsumitutakoaren erdia. Hori dela-eta, premiazkoa gertatzen da etxebizitzarik zaharrenetan inbertitzea eta dirulaguntzen kopuruak handitzea, modu horretan eskuragarri gerta daitezen diru-sarbide apalenak dituzten etxebizitzetarako.

Halaber, bertan aipamen hartzen da Administrazioaren jabetzako etxebizitzaren kasua, izan ere, etxebizitza horietan pobrezia pairatzen duten familia ugari bizi baita. Etxebizitza batzuek birgaitzen hasi arren, oraindik ere asko daude egoera makalean, eta, agian, Administrazioak etxebizitza horiek konpondu beharko litzuke lehenik.

2.4. Inplikaturako eragileen rola ebaluazioa

Pobrezia energetikoaren inguruan eragile desberdinak daude konprometituak. Batetik, nabarmendu daiteke Administrazio Publikoa, bere maila desberdinetan; bestetik, enpresak; eta bestalde, gizarte zibila. Eragile bakoitzak bete behar duen rola inguruan eta bakoitzaren garrantziari dagokionez, berriemaile horiek guztiak bat datoz Administrazioaren garrantzia nabarmentzean.

Arazoaren jatorriaz galdetzean, elkarriketaturiko eragileek ez dute inolako zalantzarik sektore energetikoaren gaur egungo erregulazioa nabarmentzerakoan, hau da, Estatu Administrazioak (edo Europakoak) duela egiazkoa eta eraginkorra den boterea arazoari aurre hartzeko, izan ere, beronek baitu gaitasuna arlo horretan erregulazioak bideratzeko. Horren ondorioz, bestelako administrazioetan bideratutako ekimen horiek guztiak lagundu arren, ezingo diote arazoari benetako irtenbiderik eskaini.

Administrazioak boteretsuena estatukoa da, baina eraginkortasun urriena azaltzen ari da, izan ere, bere politika ez da bideratzen ari pobrezia energetikoaren arazoa arintzera.

Ardura izan behar du Europako eta estatuko instituzioek, berauek aldatu behar dute egungo legeria.

Administrazioak arautu beharko luke engeriaren ekoizpena, banaketa eta merkaturatzea, betiere modu iraunkor batean eta arazoizko prezioan ekoiztea helburu izanik.

Estatuak du horniduren mozketak legez debekatzeko eskumena edota modu positibo batean ebaluatzeko ardura sozialarekin betetzen duten enpresen zeregina.

Estatuko Administrazio Orokorrek jardun behar du gaiari aurre hartzeko, lege mugatua delako azpiko mailan dauden administrazioen jarduna.

Halaber, eragile horiek diotenez, hartu beharreko alderantzizko norabidea hartu dute azkeneko urteotan erreforma energetikoen bidetik eskaintzen ari diren aldaketek; hortaz, ez dira bideratzen pobrezia energetikoaren arazoa konpontzera, eta bai, aldiz, arazoa larriagotzera.

Herritarrekiko ardura bat du Administrazioak, baina kontrako bidea hartu du, izan ere, energiaren liberalizazioa agindu zuen 1997. urtean, horren ondoren onartu egin zituen horniduraren mozketak, eta 2012tik erreforma energetikotik at uzten ari dira energia berriztagarriak.

Erkidegoetako Administrazioei dagokienez, ulertzen dute berauen ekimenen arrakastarako indarrak batu eta maila altuagoetatik datozen irizpideei izaera soziala izateko eskatu behar zaiela.

Politika energetiko, sozial, ekonomiko eta laborek eskutik helduta joan behar dute, horiek guztiak elkarri erlazionatuta daudelako; ezin da gertatu energiaren prezioek gorakada izatea eta ordainsariekin beheraka egitea.

Energiaren eskumenak jasotzeke dituenek, Aldundiak ez du ezertarako abagune handiegirik. Horren haritik oso baikortzat jotzen da pobrezia energetikoa prebenitzeko estrategia zehatz bat bideratzea.

Nolanahi ere, Aldundiak burutu dezake administrazioen arteko koordinazio lana, eta beste administrazio guztien moduan, gehiago egitea eskatu diezaioke erabakitzeko ahalmena duen horri.

Beharbada, urteotan aurrerabide nabarmenena izan du Gipuzkoako Foru Aldundiak, eta atzetik datoz bestelako administrazioak.

Eredu energetikoa aldatzeko gaitasuna Administrazio Zentralak du, baina biztanleen ongizatea zaintzeko ardura du Aldundiak, izan ere, beronek artatzen ditu bere lurraldeko biztanleak.

Partaide izandako eragile batzuen esanean, ziurrenik eraginkorragoak izan daitezke lurraldeen mailako ekimen batzuek kanpaina horiek ikusgarriago bilakatzeko, eta horren ondorioz, Gipuzkoako Foru Aldundiak bideratu eta bultzatu behar omen lituzke Administrazioaren bestelako maila batzuekin adostutako proiektu komun eta alternatibo batzuek.

Bestalde, udalek baliatu beharko lukete herritarrekiko duten gertutasuna, eta beste erakunde batzuen aldean duten konfiantza hori erabili beharko lukete bai egoerak ezagutu bai dagozkien mezuak transmititzekoan. Horren inguruan, eragileel diote eraginkorragoak direla gertuen dauden administrazioak, nahiz eta erabakitzeko ahalmen gutxiena berauek izan. Hain zuzen ere, gizarterbitzuetako udal-teknikarien taldeak nabarmentzen du eskumen-aldaketa horiek lagun behar dituztela izan nahikoak izango diren finantzazio-iturriak.

Azpiko mailan daudenak dira administrazio publiko eraginkorrenak, egia izan arren besteei banatzeko baliabide eta finantza-iturriak goiko mailan dauden administrazioenak direla. Herritarrek ez dute joko Aldundi edo Eusko Jaurlaritzara laguntza edo informazio eske. Horregarik bideratu behar zaizkio baliabide gehiago herritarrengandik gertuen dagoen Administrazioaren atalari.

Ukaezina gertatzen da lankidetzak egokia behar duela izan Administrazio bereko sailen artean (Gizarte Ongizatea, Ingurumena), izan ere, izaera transbertsala baitu pobrezia energetikoak, eta horren ondorioz, eraginkortasun handiagoa izango du alderdi horiek guztiak kontuan hartzen dituen adosturiko konponbideak. Alde horrekiko, elkarrizketetan partaide izandakoek nabarmentzen dute Administrazioko langileei dagokien arazoa. Adibidez, Ingurumeneko langileek ohitura dute lankidetzan jarduteko, baina ez hori bera gertatzen beste arloetan. Horretaz gain, nabarmena gertatzen da problematika politikoa, izan ere, desadostasunak gertatzen baitira sail desberdinen buru talde politikoa desberdinak daudenean, eta berauen artean baterako ekimenak abian jarri behar dituztenean. Eragile batzuek diotenez, hobetzeko bideak egon arren, elkarri koordinatzen dira jada; baina beste batzuen ustean, koordinaziorik ezertxo ere ez da gertatzen.

Tokiko eta eskualdeko garapenerako erakundeek asko dute egiteko, dela berauen kontutik, dela beste instituzio batzuen elkarkidetzan. Berriz ere nabarmentzen dute Aldundiak eginkizun zabala duela ekimen horiek bultzatzeko. Kolektibo eta arlo ugariekin interakzioa dute garapenerako erakunde horiek (Industria, Nekazaritza), eta, horren ondorioz, kalitatezko informazioa transmititzeko bide egoki gertatzen dira.

Azkenik, aditu diren pertsona horietatik inork ere ez du zalantzarik tartean dauden administrazioen inguruko koordinazioaz, behintzat, politika horiek guztiek bide norabide berbera izateko, hari-gidari berbera izan eta bide horretatik herritarrek gaiaren inguruko ziurtasuna nabarmendu ahal izateko.

Modu koordinatu batean lan egin behar dute administrazio publiko desberdinek, bakoitzak dituen eskumenen inguruan.

Halere, ez omen da hori beti gertatzen elkarrizketetan partaide izandako pertsona batzuen esanean.

Koordinazio-eza nabarmentzen da administrazio desberdinen artean, eta baita ere Administrazio bakoitzaren baitan. Arazo horrek eragiten die sail desberdinei, eta ezinbesteko gertatzen da horien arteko lankidetzaren gertatzea.

Ez du ematen administrazioen arteko koordinaziorik dagoenik, oraindik ere berriegia dela ematen du pobrezia energetikoaren kontzeptu horrek.

Enpresei dagokienez, berriemailetako batzuek esaten dutenez, berauen izaeragatik ez dute jardueragatik onura lortzeaz gain beste helbururik bilatzen, eta ezin omen zaie eskatu berauen interes propioen aurka jardutea. Halere, batzuek nabarmentzen dutenez, ezin dute berauen ardura sozial korporatiboa alde batera utzi, eta eskatu egin beharko litzaieke gizartearen ongizatearen alde gehiago konprometitzea.

Administrazioarentzat onargaitza izan behar du enpresak aberastea biztanleen pobrezia-eraginez.

Azkenik, gizarte zibilak ez du erabakitze ahalmen gehiegirik arlo honetan (botuen bitartez politika horiek erabaki, zigortu edota bermatzeaz gain), baina bada zereginik mobilizazioen bitartez aldaketak gertatzeko presioa handitzeko. Gai horren inguruan, gehienbat ingurumen eta energiaren arloan elkarrizketaturiko partaideen esanean, mobilizazioen bideari ekiteko eskatzen dute Administrazioak egoera aldatzeko duen ekimen edo borondate politiko eskasari aurre egiteko.

Oso garrantzitsua da Gobernu eta enpresen rola; horregatik ezin da ulertu egoera ez aldatzea, eta horregatik ezinbesteko gertatzen da gizartea mobilizatzea.

2.5. Iraunkorra den eredu energetikoa

Elkarrizketetan partaide izandako eragileen gehiengoak dio gaur egungo eredu energetiko ez dela iraunkorra inolaz ere, eta berauen ustez, konponbidea bilatu behar da eredu horren aldaketa bultzatuz. Hala eta guztiz ere, azaltzen dute legeriaren bidetik egin daitekeela soilik, eta horren ondorioz Estatuaren esku dagoela aldaketa hori gertatzea; eta ez du ematen horretarako prest dagoenik, batik bat, atzetik dauden interes ekonomikoek baldintzatuta dagoelako.

Kontsumoari dagokionez, komeni da berriz aipatzea konfortaren estandarren eta kultura-balioen gaia. Bertan nabarmentzen da norberak ezin duela nahi adina energia kontsumitu, nahiz eta jatorri berritzaileko energia izan; beraz, hasi beharko litzateke kontsumo-eredua aldatzetik. Jakinekua da eredu idealena bai produkzio bai kontsumoaren ikuspegitik ingurumenari kalterik gutxien egiten dion bat izango litzatekeela, eta saiatu beharko litzateke pentsamoldeak bide horretatik urratzen.

Produkzio eta banaketari dagokionez, jendearen hautemate orokorrak nabarmentzen du energiaren oligopolio baten aurrean gaudela, eta horren ondorioz kontsumorako helburuetatik urrun dauden

gune batzuetan sortzen direla, horrek duen garraioari loturiko kostuak gehituz. Gainera, produkturik gehien sortzen da erregai fosilak erabiliz, eta horrek sortzen du ezegonkortasuna eta prezioen hazkuntza bat gertatzea, izan ere, hazi egingo baitira prezioak baliabide fosil horiek ahitzen diren heinean, eta horregatik ezinbesteko gertatzen da berriztagarri diren baliabideen alde apustua egitea. Energia berriztagarriak dira prezioak baretzeko gaitasuna izan dezaketen energia-iturri bakarrak, izan ere, agorrezinak dira energia-iturri horiek, eta ez daude kantitatearen arabera baldintzatuta.

Egungo kontsumo-eredua ez da iraunkorra ekonomikoki, sozialki eta ingurumenari dagokionez.

Energiaren kudeaketan agintzen du negozioaren logikak, baina ez du zeresanik iraunkortasunak.

Eragile bakoitzak eginiko ekarpenetatik ondorioztatu daiteke ondorengo irizpide hauei erantzuten dien iraunkorra izango den eredu energetiko bat:

- Energiaren eskaria eta kontsumoaren gutxitzea. Batetik, gutxitu egin behar da energiaren eskaria, eta horrek zuzeneko erlazioa du etxebizitzaren ezaugarriak eta etxebizitzaren efizientzia energetikoarekin. Bestetik, gutxitu egin behar da energiaren kontsumoa, eta horrek erlazioa du azturen aldatzarekin, nahiz eta aipatu den moduan, batzuen ustez gutxi omen dago egiterik arlo horretan, kontsumoak asko gutxitu direlako.
- Garraioaren kostuak gutxitzeko produkzio eta kontsumorako guneen arteko gertutasuna.
Eredu energetiko iraunkor batek ezinbestean oinarri hartu behar ditu tokiko ekoizpena eta kontsumoa, edota ahalik eta gertukoena, behintzat. Tolosa eta Oñati eredugarri gertatzen dira, energia-banaketa kontrolatzen dutelako.
- Energia sortzeko guneak ugaltzea, hau da, kantitatea eta prezioa kontrolatzeko zentral txikiak sortzea.
- Autokontsumoak behar du izan helburu nagusia, izan ere, sortze eta kontsumoaren kontrola pertsonen mende jartzeaz gain, ingurumenaren errespetuarekiko jabetzea ekarriko du horrek.
- Jatorri berriztagarriko energiak laguntzea aurretik aipaturiko horregatik, hau da, agorreziak direlako, eta horren ondorioz prezioaren egonkortasuna bermatzen dutelako.
- Herritarren zerbitzura egon behar du eredu energetiko ideal batek, eta ez enpresa handien alde.

Eragile batzuek nabarmentzen dute azkeneko urteotan gertatutako prozesua alderantzikatu beharra, izan ere, modu progresibo batean liberalizatu baita energiaren produkzio eta banaketa gaur egungo egoerara heldu arte, hau da, erabatean enpresa pribatuen esku gelditu arte. Premiako ondare bat dela kontuan hartuz, Estatuak hornitu eta bermatu beharko luke, azken batean, bera baita ongizate sozialaren arduradun nagusia.

Ez da justua egungo eredu energetikoa, pertsona eta enpresa gutxi batzuek aberasteko eta gizarteko beste biztanleen pobretzea gertatzeko antolatuta dagoelako.

Energia esku pribatuetan egotea onartuz gero, ezinbesteko gertatzen da kudeaketa-moduari jarraipen bat egitea, eta oraingoz ez da horrelakorik egin energia liberalizatu zenetik.

Batzuek azpimarratzen dute energia nazionalizatu beharrik ez dagoela (horrek sistema osoaren aldaketa bat ekarriko luke), eta portzentaje batean egin omen daiteke hori. Hori egin ez arren ere, ematen du galdegindako pertsona horiek guztiek onartzen dutela Administrazioaren salneurriekiko kontrola mantentzea, eta hori egiteko enpresak ikuskatu behar dira, eta gaur egun ez da horrelakorik egiten.

2.6. Gipuzkoako pobrezia energetikoaren prebentzioa

2.6.1. Antzemandako lehentasunak

Energiarekiko eskubidea ulertu behar da lehentasuna duen premiako ondasun gisara, elikaduraren maila berean. Baina ematen duenez, [...] ez da horrelakorik gertatzen, eta ulertezina gertatzen da premiako ondare bati %21eko BEZa gehitzea.

Izaera integrala hartu behar du pobrezia energetikoaren inguruko kasuistika anitzari erantzuteko bideratzen den ekimenerako estrategia batek.

Egoera eta baldintzak anizkunak izan daitezkeen arren, trataera desberdina izan behar dutela nabarmentzean elkarrizketaturiko pertsonen iritziak bat datoz, eta nabarmendu behar omen da ondorengo bi kolektibo hauen egoerak: premiako laguntza behar duten pobrezia energetikoa pairatzen duten pertsonak; eta pobrezia energetikoa pairatu aurretik modu prebentiboan aldeko ekimenak bideratu beharreko egoera kaltebera bizi duten pertsonak.

Halaber, ados datoz nabarmentzean pertsonak behar dutela izan estrategia horren lehentasun, eta ezarri behar direla nabarmendutako bi kolektibo horientzako neurri zehatz eta desberdin batzuek. Diru-hornidura izateaz gain, estrategia horri loturiko ekimen horiek beharrekota dute azpiegitura bat pobrezia energetikoko egoeran edo arriskuan dauden etxebizitzak zeintzuk diren ezagutu eta premiakoa den dirulaguntza helarazteko.

Prebentzioari dagokionez, ekimen-ildo batzuek ezarri behar dira epe ertain eta luze baterako, berabei legezko itxura eta babes eman eta egokia den azpiegitura bat eskainiz. Politika prebentiboak berehalako arretaren garrantzi berbera du, izan ere, horrek prebenitu baitezake etxebizitza askotako

egoerak bazterkeriara jotzea. Beraz, kontzientziarioan eta etxebizitzaren hobekuntzan –gehienbat zaharretan– eragin beharra dago.

Ezin da ahaztu estrategia honen azken bateko xedea dela gizarte-bazterketa horiek ekiditea, eta horretarako kontuan hartu behar dira betekizun garrantzitsua duten faktore horiek guztiak, eta ezarri behar dira sinergia batzuek inplikatuak dauden eragileen artean, hau da, Administrazioa, eragile sozial eta enpresen artean, sail desberdinen arteko lankidetzaz, enpresa pribatuekin garaturiko proiektuak edota ekimen pribatuak bultzatzea. Azken batean, laguntza eskaini behar zaie arazoaren ikusgarritasunari eta irtenbideen alde egiten duten neurri horiei guztiak.

Lehendabiziko urrats gisara, bertan elkarrizketaturiko pertsona batzuek eskari bat luzatzen dute gure testuinguru sozialeko pobrezia energetikoaren definizio bat zehazteko, modu honetan egoera bakoitza egoki ezagutu eta artatzeko.

2.6.2. Aurkeztutako proposamenak

Arazoari ez zaio aurre egiten errotik, hau da, sistema eta legeria aldatu beharra dago konponbidea lortzeko.

Elkarrizketak burutzean azaldu izan dira ikuspegi desberdinetatik aurre egiteko neurrien inguruko askotariko proposamenak. Atal honen xedea da berauek jasotzea modu ordenatu batean, etorkizuneko Gipuzkoako pobrezia energetikoaren prebentzio-estrategiarako esparruan kontuan hartzeko.

PROPOSAMENAK
Izaera zuzentzailea duten neurriak dagokienez:
- Gutxiengo iraupena bermatzeko energia-horniduraren etenak debekatzea.
- Gutxiengo energia-hornidura ordaintzerik ezin duenari Administrazioak aurreratzea ordainketa hori, eta horren truke etxebizitzako egoera ekonomikoa hobetzean ordainduko denaren konpromisoa hartzea.
- Aldundiak beregain hartzea gutxiengo energia-hornidura eta kostu hori berreskuratzea Euskal Administrazioak Estatuari ordaintzen dion kupoaren bitartez.
- Dirulaguntzen kopurua areagotzea.
- Dirulaguntzen sistema sinplifikatu eta argitzea, Etxebide–Etxebizitzaren Euskal Zerbitzuak kudeatzen dituen etxebizitzaren inguruko prestazio horiek guztiak bateratuz.
- Gizarte-zerbitzuetako udal-teknikariei sostengu administratiboa areagotu, modu horretan lan batzuek kendu eta dirulaguntzen eskakizunak bideratu dituzten etxebizitzaren jarraipen zorrotzagoa egin ahal izatea.
Neurri prebentiboak dagokienez:
• Informazio eta prestakuntzari dagokionez:
- Kanpainak lotu abian den eta funtzionatzen duen zerbitzu batekin, modu horretan eskainitako informazioaren bermea bilakatu dadin.
- Kontsumoa aurrezteko modu errazak sustatu (adibidez, hezetasunari aurre egiteko hezetasun-kengailuak erabili ordez etxebizitzak haizeberrituz, edota gaueko tenperatura baxuak ekiditeko pertsonak itxiz).
- Erabiltzaileek faktura ulertzen laguntzeko zerbitzu bat sortzea.
- Efizientzia energetikoaren inguruko prestakuntza sustatzea gai honetan inplikaturiko ondorengo gremio hauen artean: arkitekto, ingeniari, aparejadore, eraikitzaile, higiezin agentzia eta finka-administratzaileak. Izaera integral eta transbertsala behar du prestakuntza horrek.

[Jarraitzen du]

PROPOSAMENAK
<ul style="list-style-type: none"> • Etxebizitzetarako dagokienez: <ul style="list-style-type: none"> - Katastroaren bitartez identifikatu udal-etxebizitzak, modu horretan kokatu eta ezaugarritzeko, eta horren ondoren beraien efizientzia energetikoa balioetsi eta hobetzeko ekimen-plan bat ezartzea. - Udaletako arautegien bidez eskatzea etxebizitzaren gutxiengo isolamendu bat eta hori exijitzeko faktadun birgaitzeaz baliatzea. - Etxebizitzarako efizientzia energetikoaren laguntzen diru-kopurua areagotzea, bereziki baliabide gutxienerako etxebizitzaren kasuetan. - Zerga zehatz batzuen salbuespena egitea birgaitzerako lanetan efizientzia energetikoaren aldeko zenbait eskakizun tekniko betetzearen truke. - ‘Mailegu berdeak’ sustatzea: energiaren aurrezpen eta ingurumenari loturiko mailegu-ildoak dira, eta horien bidez ezartzen dira baldintza berezi batzuek ekologikoak diren ibilgailu, etxetresna elektriko efizienteak eta aurrezki energetikoa ekarriko duten etxebizitzaren erreformak egiteko. - ‘Hipoteka berdeak’ sustatzea (Mexiko): etxebizitzaren efizientziari baldintzatu hipoteka horiek (erabilaren zenbateko gehigarria edota ura, argia eta gasa aurrezteko teknologia ekologikoez hornituriko instalazioak bultzatzea). - Banku edo kutxekin hitzarmenak ezarri efizientzia energetikoan oinarrituriko hipoteka eta maileguak errazteko. - Laguntzak erraztu efizienteagoak diren argindar-sistemetera aldatzeko, adibidez, galdarak.
<ul style="list-style-type: none"> • Administrazioen ardurari dagokienez: <ul style="list-style-type: none"> - Energia oinarriko ondasun gisara hartzeko abian jartzea premiako diren mekanismoak. Oinarriko premiak bermatzeko gutxiengo energia-kontsumoa zergapetzea, eta gutxiengo horretaz gora luzuzko ondasun modukotzat kontuan hartzea. Edo bestela, kontsumorik apalenei hobariak ematea. - Legeak bermaturiko energia-horniduraren gutxiengo sorta batzuek ezartzea. - Tokiko mailara ekartzea erabakitzeko ahalmena, eta eskumen berri horiek laguntzea premiako duten aurrekontuen diru-horniduraz. - Energia-kontsumoaren datuak (enpresa hornitzaileen bidez) eta errenten inguruko datuak konparatzea (Ogasunaren bidez) kaltebera diren etxebizitzak identifikatzeko. - Eraikuntza publikoetan energia-inbertsioak sustatzea (Kataluniako kasuan, adibidez, eskola batzuetan itzuli egiten zaie portzentaje bat ildo horretako neurrietan inbertsioak egiten jarraitzeko). - Izaera iraunkorreko energiaren erosketak egin ditzala Administrazioak, adibidez, soilik kapital sozialaren ehuneko zehatz bat duten enpresei erostea. - Klausulak jartzea kontratu publikoetan pobrezia energetikoa ekiditeko ekimen onenen aldeko enpresei puntuak emanez (adibidez, puntuak ematea hornidura eteten ez duten enpresei edota kapital soziala duten enpresa horiei). - Energiaren erabilera efizientea saritu edo zigortu, adibidez, efizientzia energetikoaren ziurtagiria dutenei ondasun higiezinaren gaineko zergari hobariak eskainiz. - Kontuen ikuskatzeak burutzea enpresa banatzaileei energiaren fakturak adierazten duen kostu bera ote duen egiaztatzeko. - Prestakuntza jasotako Administrazioak langileek pobrezia energetikoa pairatzen duten etxebizitzetan aholkularitza energetikoa burutzea. - ‘Efizientzia boltsak’ sustatzea: horretarako ezartzen dira efizientziarako helburu batzuek, eta aurrezki ikusitako helburuak betetzean ordaintzen da horretarako bideratutako aholkularitza, eta berriz ezartzen da helburu berri bat. - Partekatutako diren zerbitzuak eskaini ditzatela Aldundi edo mankomunitateek. - Zerbitzu komunak sustatzea, adibidez, garbitegi publikoak, betiere gehien kontsumitzen den zerbitzuetan eraginez (argiztapena, berokuntza, hozte-sistemak). - Baliabideak eskainiz, kontsumitzaile diren pertsonen asoziazionismoa sustatu, modu horretan bana-koen aldean indar gehiago izan dezaten beraien aldarrikapenek eta berrindartu ahal izateko aldaketarako motibazioa. - Funtsa solidarioak sustatu, adibidez, udalerrri batean pobrezia energetikoa pairatzen duten etxebizitzaren egoerei aurre egiteko hilero euro bana ematen duten biztanleen kasuan. - Bezeroen kontsumoa gutxitzen lagundu eta lortutako aurrezkiaren bitartez finantzatzen diren zerbitzu energetikoen aldeko enpresei sostengua eskaini. - Energiaren zerbitzuguneak sortu.